

3/11

irizpena

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO FAMILIA
BITARTEKOTZAREN ZERBITZU PUBLIKO
INTEGRALERAKO SARBIDE PROZEDURAREN
Dekretu Proiektuari Buruzkoa

Bilbon, 2011ko martxoak 9



CES
EGAB

Consejo Económico
y Social Vasco

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte
Arazoetarako Berezitas



*i*rizpena 3/11

I. AURREKARIAK

2011ko otsailaren 4an Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordean Lan eta Gizarte Gaietarako Sailaren idazkia sartu zen. Beraren bidez, txostena eskatu zuten *Euskal Autonomia Erkidegoko Familia Bitartekotzaren Zerbitzu Publiko Integralerako Sarbide Prozeduraren Dekretu Proiektuari buruz*, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeari buruzko ekainaren 27ko 9/1997 Legearen 3.1.b) artikuluan ezarritakoaren arabera.

Dekretu Proiektu honek, Euskal Autonomia Erkidegoak gizarte laguntzaren arloan dituen eskumenak eta abenduaren 5eko Gizarte Zerbitzuei buruzko Legeak, 12/2008 Legeak, Eusko Jaurlaritzari emandako arauzko ahalmena erabiliz, eta Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Prestazio eta Zerbitzuen Katalogoan jasotako zerbitzuetara jotzeko eskakizunak eta prozedurak ezartzeko 23.1 artikulua betez, familia bitartekotzako zerbitzu integralera jotzeko prozedura ezartzeko helburua du.

2011ko martxoaren 1ean Gizarte Garapeneko Batzordea lan-saioan bildu zen Irizpen Aurreproiektuaren proposamena eztabaidatzeko, eta erabaki zuen 2011ko martxoaren 9ko Euskadiko EGABren Osoko Bilkurari aurkeztzen zaion hurrengo Irizpen Proiektua onartzea. Osoko Bilkurak aho batez onartzen du.

II. EDUKIA

Kontsultara aurkeztutako Dekretu Proiektuaren testuak Hitzaurrea, sei artikulua eta bi Azken Xedapen ditu.

Hitzaurrea

Dekretu Proiektuaren Hitzaurrek arau-ekimen hau jasota dagoen legezko esparrua deskribatzen du. Hau Familia Bitartekotzari buruzko otsailaren 8ko 1/2008 Legeak, familiako bitartekotza eta aipatutako jardueran lan egiten duten pertsonen jarduketak araupetzen dituen eta familiako bitar-

tekotza gizarte zerbitzu gisa, eta Eusko Jaurlaritzaren ekintza zuzeneko gisa deklaratu egituratzen duenak, zein Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legeak, familiako bitartekotzako zerbitzu integrala Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Prestazio eta Zerbitzuen Katalogoko parte gisa jasotzen duenak, osatuta, eta Eusko Jaurlaritzaren ekintza zuzenean jasota.

Jarraian, ekimenaren helburua zehazten du. Hau da, familiako bitartekotzaren zerbitzu integralerako sarbide prozedura ezartzea, Gizarte Zerbitzuen Legearen 23.1 artikularekin bat etorritz.

Xedapenen Atala

- 1. artikulua** Dekretuaren xedea finkatzen du, familiako bitartekotzako zerbitzu integralera jotzeko prozedura araupetzea alegia.
- 2. artikulua** familiako bitartekotzako zerbitzu integralera jotzeko prozeduraren hasiera araupetzen du, hau eskabide bidez egingo dela finkatuta, eredu normalizatuaren arabera, eta gatazkan dauden alderdi guztiek edo batzuek sinatuta. Halaber, eskabideak aurkezteko tokiari, bitarteko elektronikoak erabiltzeari eta eskabideak aurreikusitako eskakizunak betetzen ez dituenean egin beharrekoari buruzko xedapenak ere ezartzen ditu.
- 3. artikulua** familiako bitartekotzako zerbitzura jotzeko eskabidearekin batera EAEko udalerriren batean eskatzaileetako bat gutxienez erroldatuta dagoela egiaztatzen duten agiriak aurkeztea aurreikusten du.
- 4. artikulua** ezartzen du familiako bitartekotzaren arloan eskuduna den Eusko Jaurlaritzaren Zuzendaritzak beharrezko instrukzio-ekintzak ofizioz egitea ebazpena emateko erabili beharreko datuei dagokienez, interesdunek jarduketak proposatzeko duten eskubidea baztertu gabe.
- 5. artikulua** hilabeteko epea ezartzen du ebazpena eman eta familiako bitartekotzaren arloan eskuduna den Eusko Jaurlaritzaren Zuzendaritzak jakinarazpena egiteko, eskudun Sailaren erregistroan ematen denetik

zenbatuta. Eskudun organoak ezarritako epearen barruan ebazten ez duen kasuetan izaera positiboko isiltasuna aurreikusten da.

Zerbitzura jotzeko eskabidea gatazkan dauden alderdi guztiek sinatu ez duten kasuetan, berriz, Ebazpenean Familiako Bitartekotzari buruzko 1/2008 Legearen 19.1.b) artikuluaekin bat etorriz jarduketa xedatzea erabakitzen da familiako bitartekariaren aldetik.

6. artikulua aurreikusten du ebazpenaren aurka gorako errekurtoa aurkeztu ahal izatea eskuduna den sailburuaren aurrean Administrazio Publikoen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko Legearen terminoetan.

3/11 

Lehenengo Azken Xedapenak aurreikusten du Administrazio Publikoen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko 30/1992 Legean xedatutakoa aplikatzea Dekretuan araupetu gabeko prozedurako gaietan.

Bigarren Azken xedapenak ezartzen du Dekretua indarrean sartuko dela EHAAan argitaratu ondoko egunean.

III. GOGOETA OROKORRAK

Familiako bitartekotza familia barruan sortzen diren gatazkek epaiketatik kanpo ebazteko formula da, EAEn ezarpen aitzindaria duena 90. urteen panorama automatikoan. Hala ere, 2008. urtean *Familiako Bitartekotzari buruzko 1/2008 Legea* hartu arte, irudi honi babesteko beharrezko berme juridikoak ematen dizkion aplikatu beharreko legezko esparrurik ez da egon.

1/2008 Legeak familiako bitartekotza araupetzea ezartzen du familiaren barruan agertzen diren gatazkek epaiketatik kanpo ebazteko prozedura gisa, bere 1.2 artikuluan *borondatezko prozedura gisa egituratzen da, eta bertan bitartekotzako kalifikazioa duten profesional bat edo gehiagok, inpartzialak eta erabakitzeko botererik gabe, alderdiak lagundu eta orien-*

tatzen dituzte familiako gatazka amaitzea ahalbidetzen duten konponbide onargarriak aurkitzeko beharrezko prozedura elkarrizketatuari dagokionez.

Hala eta guztiz ere, figura hau ez da hartu behar eztabaidak ebazteko prozedura jurisdikzionalen ordezkotza formula edo formula osagarritzat bakarrik, baizik eta familiako bitartekotzat gizarte zerbitzuaren dimentsio garbia aurkezten duela, familiako gatazka baten tratamenduak batzuetan gizarte babeseko bestelako sistema batzuekin koordinatutako interbentzioa eskatzen duelako.

3/11 *i*

Zentzu horretan, Familiako Bitartekotzari buruzko Legeak berak familiako bitartekotza integraleko zerbitzuak egon behar direla aitortzen du, baita hauen eta Gizarte Zerbitzuen Sistemaren gainerako zerbitzuen eta gizarte babeseko beste sistema batzuen artean jarduketara koordinatua ere, familia edo bizikidetzako talde bateko kideen arteko gatazken arretarako beharrezko diren esparru guztietan.

Horrela, Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legeak familiako bitartekotzako zerbitzu integrala Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren esparruan sartu du, *Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Prestazio eta Zerbitzuen Katalogoan* jasotako bigarren mailako arretarako gizarte zerbitzu gisa egituratuta eta, ondorioz, eta 21.1 artikulua betez eskudunak diren euskal administrazio publikoek bermatu beharko duten zerbitzu gisa identifikatuta, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Prestazio eta Zerbitzuen Zorroan garatuz, eta bere exekuzioa, berriz, zuzeneko ekintzako zerbitzu gisa, Eusko Jaurlaritzaren eskumenari egotzita gelditzen da.

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak Irizpenaren xede den Dekretu Proiektua positiboki baloratzen du, izan ere, Eusko Jaurlaritzaren arazko ahalmenaren ariketa da Gizarte Zerbitzuen Legearen aurreikuspenak garatzeko, eta oso zehazki *Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Prestazio eta Zerbitzuen Zorroa* egiteko beharrezko diren familiako bitartekotza zerbitzura jotzeko prozedurak eta eskakizunak zehazteko eta, ondorioz, zerbitzu hau praktikan gauzatzeko EAEko he-

rritarren eskubide subjektibo gisa Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren esparruan.

Hala eta guztiz ere, zerbitzu honetara benetan jotzeko beharrezko diren legezko tresnez gainera, ezinbestekoa da giza baliabideak eta baliabide materialak esleitzea zerbitzu honetara jotzeko eskubidea gauzatzeko. Horregatik, hain zuzen ere, Dekretu Proiektu zehatz honen memoria ekonomikorik ez egoteak kezkatzen gaitu eta, oro har, Gizarte Zerbitzuen Legearen Zerbitzuen Katalogorik ere ez egoteak, izan ere, zerbitzua ezartzearen dimentsio ekonomiko eta bere finantzaketari buruzko ziurgabetasunek azkenean berari birtualtasun praktikoa ukatu ahal diote.

Izaera orokorreko oharren atala bukatzeko, adierazi nahi dugu Gizarte Zerbitzuen Legearen Zerbitzuen Katalogoaren zerbitzu soziala, kasu honetan familia bitartekotzako zerbitzu integrala den bezala, eskumen, lege eta praktikaren zailtasun handiko Gizarte Zerbitzuak bezalako esparru material batean, erregulatu eta egituratzeko xedapenak benetan hartzea den aurrerapenari buruz iritzi positiboa dugula.

IV. KONTSIDERAZIO PARTIKULARRAK

1. artikulua.- Xedea

Dekretuaren xedearen definizioak, familia bitartekotzako zerbitzu integralerako sarbidearen erregulazioan zehaztuta, Batzorde honen iritziz, zerbitzu honetarako doakotasuna zehaztu behar du. Doakotasun hau, Familia Bitartekotzako Legeak Arrazoen Azalpenean jasotzen duen bezalaxe, gatazkak konpontzeko zerbitzu gisako ezaugarria duela, arbitraje eta kontsumoko judizioz kanpoko ebazpenaren prozeduren antzekoa, eta 4.1 artikuluan espresuki adierazitako aurreikuspenen *“Familiako bitartekotzaren arloan eskuduna den Eusko Jaurlaritzaren Sailak familia bitartekotzako doako zerbitzu publiko integralak sortu eta mantenduko ditu,…”*

V. ONDORIOAK

Euskadiko EGABk egokitzat jotzen du kontsultaren xede den Dekretu Proiektuaren izapideak egitea, Irizpen honetan egiten diren oharrak egin-da.

Bilbon, 2011. urteko martxoaren 9ean

O.E. Presidentea
Juan María Otaegui Murua

Idazkari Nagusia
Francisco José Huidobro Burgos



**CES
EGAB**

Consejo Económico
y Social Vasco
Euzkoiko Ekonomia eta Gizarte
Arazoetarako Batzordea

©Argitalpena: Euzkoiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordea
Gran Via 81, 7. solairua
48011 Bilbao, Bizkaia
www.cesvasco.es

Maketazioa: Curobarra Comunicación

Inprenta: Inprenta Gestigraf

Lege Gordailua: BI-700-11